


## Ekainak 5, Ingurumenaren Munduko Eguna

Ingurumenaren Munduko Eguna dela eta, gazteek klima aldaketari buruz dituzten iritziak aurkeztera dator Gazteen Euskal Behatokia.

Euskadiko 18 eta 29 urte bitarteko gazteen % 88 kezkatuta daude klima aldaketa dela eta (kezka dezente, handia edo izugarria dutela adierazi dute). Gai honi buruz kezkatuta azaltzen diren gazteen portzentajea Euskadiko biztanleriaren batez bestekoaren gainetik dago (% 83).

Gazteen % 72k uste dute klima aldaketa, batez ere, gizakion jardueragatik sortzen dela. Beste % 25ek uste dute neurri batean prozesu naturalengatik datorrela baina baita gizakion jardueragatik ere, eta bakarrik % 1ek dio nagusiki prozesu naturalengatik sortzen dela. Klima aldaketa gizakion jarduerak dakarrela uste dutenen proportzioa handiagoa da gazteen artean biztanleria osoan baino (% 63).

**Klima aldaketaren sorburu nagusia, Euskadiko 18 eta 29 urte bitarteko gazteen iritziz (%)**




*Iturria: Gazteen Euskal Behatokiak egina, Eusko Jaurlaritzaren Prospekzio Soziologikoen Kabinetearen datuak oinarri hartuta ("Klima aldaketa eta energia", 2017koa)*

Gazteen % 93ren ustez, klima aldaketaren kontra borrokatzeko pertsona bakoitzak bere energia-kontsumoa murriztu beharko luke. Eta gizarte osoa iritzi horretakoa bada ere, ideia horrekiko adostasuna handiagoa da adinean behera egin ahala: 65 urtetik gorakoen % 81 ados daude, 46 eta 64 urte bitartekoen % 87 ados ageri dira, 30 eta 45 urte bitartekoen % 90 daude ados eta 30 urtetik beherakoen artean % 93.

Gainera, gazte gehienak guztiz ados daude klima aldaketaren kontra borrokatzeko bi neurri hauekin: energia berriztagarriak gehiago garatzea (% 83) eta garraio publikoa gehiago sustatzea (% 63). Bi neurri horiek 2019ko Ingurumenaren Munduko Egunaren gai nagusiarekin lotuta daude: airearen kutsaduraren kontrako borroka, hain zuzen ere.

Idea horiekin guztiz ados daudenen portzentajea handiagoa da gazteen artean biztanleria osoaren batez bestekoa baino.



*Iturria: Gazteen Euskal Behatokiak egina, Eusko Jaurlaritzaren Prospekzio Soziologikoen Kabinetearen datuak oinarri hartuta ("Klima aldaketa eta energia", 2017koa)*

Datu hauek Eusko Jaurlaritzaren Prospekzio Soziologikoen Kabineteak 2017ko urrian egin zuen "[Klima aldaketa eta energia](#)" izeneko txostenatik datoz.